



## **Basaburuko Udala**

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)

### **2024KO MARTXOAREN 27AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2024ko Martxoaren 27an, arratsaldeko 18:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, Micaela Elizalde, M<sup>a</sup> Mar Ansorena, Javier Auza eta Alaia Etayo.

BERTARATU EZ DENA: Iker Isiegas.

18:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

### **GAI ZERRENDA**

#### **1.- Aurreko aktaren onespena.**

Otsaileko ohiko batzarreko eta martxoaren 6ko ez ohiko batzarreko aktak deialdiarekin batera bidali ziren, bildutakoek aho batez onartzen dituzte biak.

#### **2.- Alkate ebazpenak**

-2024/19 alkate ebazpena ez onartuz Miguel Loidi Goñik aurkeztutako aitorpen arduratsua, Udabeko 1. Poligonoko 3. lursailean dagoen etxebizitzan eguzki plakan teiilatuan jartzeko.

-2024/20 alkate ebazpena obra baimena ematea San Miguel Parrokiari, Beramendiko apezetzeko leihoak aldatzeko 4.772,98 euroko aurrekontuarekin-

-2024/21 alkate ebazpena, onartuz Telefónica de España SLk 115/2023 ebazpenaren kontra jarritako helegitea. Ebazpen horren bidez likidatzen zen Jauntsarats eta Gartzaron arteko NA 411 Kp 8 33- 9 24 errepidean ordezkapena egiteko obraren EIOZ, hura ez baitator bat zuzenbidearekin, Nafarroan Telefonicarene zerga-araubidea ezartzen duen 11/1987 Foru Legeak ezarritakoaren arabera, tokiko tributuen ordezk

Telefonicak udalerriei egiten dien konpentsazioa ezartzen baita (udalerrri bakoitzaren fakturaziotik datozen diru-sarrerara gordinen % 1,9).

- 2024/22 alkate ebazpena, obra baimena emanaz Telefonica de España SAU-ri, Jaunsarats eta Gartzaron arteko NA 411 errepideko 8 33 -9 24 Pk-koetan 4 zutoi eta 5 riostra aldatzeko eta riostra berri bat jartzeko.

-2024/23 alkate ebazpena, onartuz Nuria Gaxas Sanchezek egindako zaharberritzeko eskaera, leihoa eta ateen zurgindegia aldatzeko, 198.93 eurokoa.

-2024/24 alkate ebazpena, onartzea, Miguel Lopez Garro 15737872 F NAN zenbakia duenari aparkatzeko elbarriendako txartela ematea.

- 2024/25 alkate ebazpena onartuz, 2024ko egur loteen esleipenduen zerrenda. Eta bertan baztertuak bezala utzi Concepción Irigoyen, Eneko Etxeberria eta Antonio Carrizosak egindako eskaerak, Aizarotzko egur loteen ustiapena aratzen duen ordenantzaren 1. Artikulua ez betetzeagatik.

- 2024/26 alkate ebazpena onartuz Nafarroako zerga ogasuneko lurralde aberastasunaren zerbitzuko zuzendariak Otsailaren 14ko 2024/2 ebazpenean onartutako eta bidalitako balioen zerrenda onartzea eta horien notifikazioa.

-2024/27 alkate ebazpena baimena emanaz Garazi Zabaletari, apirilaren 13an 10:00etatik 14:00etara Apeztegiberriko bigarren solairuko gela erabiltzeko dokumental bat eta solasaldi egiteko Irrati Arroza sareko topaketan baitan.

-2024/28 alkate ebazpena baimena emanaz Basaburuko Bilgune Feministari, martxoaren 8an arratsaldeko 17:30etatik 20:30etara Aizarotzko Luzia Goñi Kultur Etxeko erabilera anitzetako gela erabiltzeko, Emakumearen Nazioarteko egunaren baitan iharduerak egiteko

-2024/29 alkate ebazpena baimena emanaz, BTT Basaburua eskolari, Jaunsaratsen dagoen polikiroldegia erabiltzeko martxoa eta apirilean, astearte eta ostegunetan 17:30etatik 19:00etara, BTT Basaburua eskolako klaseak emateko .

-2024/30 alkate ebazpena obra baimena emanaz I de Redes Eléctricas Inteligentes S.A.U. Aizarotzko 10. Poligonoko 17. Lursailean dagoen TZ aldatzeko, obraren aurrekontua 10.345,30 euro izanik.

- 2024/31 alkate ebazpena onartuz, Mercedes Azpiroz Garro 15657769 J, NAN zenbakia duenari aparkatzeko elbarriendako txartela ematea.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte egindako alkate ebazpenak.

### **3.- Mozioak.**

Ez daude.

Gai zerrendatik kanpo badaude beste lau gai aztertzeko bildutakoek aho batez onartzen dute gai zerrendan sartzea.

### **Udabeko 1. Poligonoko 29. Lursailean udal planaren aldaketa xehetua.**

Alkateak azaltzen du espediente hau hirigintzako hainbat batzordetan aztertu dela, udal planaren aldaketa honen helburua da aipatutako Udabeko lursailean eraiki nahi den etxerako, lursaileko ordenamendua finkatu, hots lursailaren lagapenak, etxearen lerrokadurak eta beste... udal arkitektoak hala eskatuta zuzendu du hasieran aurkeztutako dokumentua eta 24/0205. Baiezko txostenaren laburpena irakurtzen du alkateak. Bertan adierazten da nola gainera kasu honetan itxidura paretaren altuera udal araudira egokitzen dela, eta horretarako eskailera moduko pareta egingo dute, bestetik lagapen gune bezala kalea zabaltzeko lerroa finkatzen dute eta autobus geltokiak betetzen duen gunean, zesio gune hauek udalari guztiz urbanizatuak utziko dizkiola aipatzen da dokumentazioan ere.

Hortaz bildutakoek kontutan hartuta udal arkitektoaren baiezko txostena 24/0205. Txostena eta ikusita 2017/1 Foru Dekretu Legegilearen 77. Artikulua, aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Hasiera batez onartzea Udabeko 1.- Poligonoko 29. Lursailerako Javier Roig Garrok aurkeztutako Udal Planaren aldaketa xehetua eta 2017/1 FDL-aren 77 artikulua jarraituz, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu, hilabeteko epean jende aurrean egon dadin espedientea alegazioak jartzeko epea irekiaz.**

- **Erabaki hau Udabeko 1. Poligonoko 29. Lursaileko jabeari jakinarazi.**

### **2024ko langabetuen kontratazioa.**

Alkateak adierazten du ireki dela kontratazioak egiteko epea eta hortaz laguntza eskatzeko ere.

Zerbitzu anitzetako langilearekin hitz egin ondoren erabaki da aurreko urtetan bezala posible bada lau pertsona kontratatzea. Bi lehenak ahalik eta azkarren kontratatzeko proposamena egin du udaleko langileak, belarrak mozteko lanak orain egin behar direlako, aldiz beste biak ekainaren erdialdetik irailaren erdialdera kontratatuak izango lirateke.

Bildutakoak ontzat ematen dute proposamena eta aztertzen dute aurreko urtean erabilitako irizpideak, eskatzaileen egoera baloratzeko, ontzat ematen dituzte irizpide berdinak erabiltzea, hortaz hauek:

Langabezian egotea eta Nafarroako enplegu zerbitzuan inskribatuta, lorezaintza peoi bezala.

Zerga betebeharrak egunean izatea.

Gidatzeko baimena izatea.

Kontratua bere hiru hilabeteko osotasunean bete beharko da, laguntza batekin lotuta dagoelako. Kontratua epea baino lehen mozten duenak ez luke aukerarik hurrengo bost urtetan kontratatua izateko.

Baloratuko diren irizpideak:

- Euskararen ezagutza
- Emakume izatea
  - Epe luzeko langabetua izatea (INEMeko ziurtagiri batekin justifikatuko da)
- Basaburuan erroldatua egotea.

Eskaerak aurkezteko epea apirilaren 22a arte luzatzea adosten dute bildutakoek, ondoren apirileko batzarrean aurkeztutako enbaldazioa egin eta kontratazioak onartzeko.

**Hortaz bildutakoek aho batez onartzen dute alde batetik, 2024. Urterako langabetuen kontratazioa onartzea eta diru laguntza eskaera egitea Nafarroako Enplegu Zerbitzura. Onartu ere langabetuekin burutzeko proiektua, “ Basaburuko gune berde eta intereseko guneen mantenimentua eta hori burutzeko 4 langile kontratatze bandoa prestatu eta tramitazioa egitea.**

### **Erakundearen zigilua egiteko atxikimendua onartua**

Alkateak azaltzen du On@ proiektuan parte hartzeko eskaera egin diola udalak Nafar Gobernuari, hortaz egun dagoen sarrera eta irteera programa eta egoitza elektronikoa Gestiona enpresarik Animsa enpresara pasako dira. Europako laguntza lerro baten bidez Nafar Gobernuak On@ programaren baitan luzatu die proposamena udalei, 2024. Urtean programa debaldekoa izango da laguntza lerro horren bidez eta hurrengo urterako gastua egun udalak duen Gestionako gastua baino txikiagoa izango litzateke. Egund 4.000 euro inguru ordaintzen dira aipatutako sarrera eta irteera programa eta egoitza elektronikoa martxan izateagatik eta Animsaren programa honen bidez 1600 euro inguruko gastua ordaindu beharko lukeela udalak azaltzen du ere alkateak.

Programa berria martxan jartzeko, lehenik erakundearen zigilua tramitatu behar da FNMT plataformaren bidez. Zigilu honek 200 euro inguruko gastua dauka, baina Nafar Gobernuaren bidez tramitatzen bada gastu hori debaldekoa da eta horretarako udaleko batzarrak atxikipena eman behar dio 2022ko azaroan Nafar Gobernuak eta FNMT erakundeak sinatutako hitzarmenari.

**Bildutakoek aho batez onartzen dute Basaburuko Uda atxikitzea 2022ko azaroan Nafar Gobernuak eta FNMT erakundeak sinatutako hitzarmenari erakundearen zigilua tramitatu izan dadin.**

**Erabaki hau Nafar Gobernuak Tokiko Administrazioari Zuzendaritza Orokorriari.**

### **Telefonica S.A ri kexa. Fibraren hodiak kentzeko.**

Alkateak azaltzen du aurreko batzarre batean, 2023ko abenduaren 21ekoan, erabaki zela enpresari jakinaraztea, kentzen ari ziren hodiak eta beste zabortegira eraman behar zituztela, eta hori egiteko 2 hilabeteko epea eman zitzaien. Jakina da Basaburuko hainbat tokitan hodiak eta beste zaborrak utzi dituztela. Telefonica enpresa jarri zen udalarekin harremanetan horren inguruan eta jakinarazi zitzaien mapa baten bidez, non zeuden zaborrak. Laster kenduko zituztela adierazi zuten ere baina egun oraindik zaborrak bertan daude. NUFK-en bidez bilera bat egin da aste honetan Telefonicarekin, fibraren zabaltzearen inguruan eta bertan adierazi zaio

Telefonicako ordezkariari udaleko kexa. Konpromezua adierazi du kexa honen nondik norakoak jarraitzeko.

Hortaz aipatutako Telefonicako ordezkariari helaraziko zaio berriro udalaren kexa eta hondakinen mapa, zaborrak kentzeko eskatuz, epe hori Maiatzaren 2a arte finkatuz.

#### **4. - Batzordeen informazioa.**

##### **Komunikazio Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.**

Udal buletina argitaratzeko bi proposamen zeuden, Ametza Kultur Elkartek egindakoa eta lametza enpresak egindakoa. Aurrekontuetan diferentzia asko zegoen bata eta bestearen artean eta merkeena onartzea erabaki zen, hots Ametza Kultur Elkartearena 7.900 eurokoa BEZ kanpo, urtean 10 buletin egiteko.

Udal buletina bakoitza burutzeko protokoloa zein izango den azaltzen du alkatean, hilabetero 20 eguneko epean buletina prest egon dadin.

##### **Hezkuntza Batzordea. Alai Etxeok ematen du informazioa.**

Ttikienako aurrematrikula apirilaren 10etik 24ra buruko da. 9-10 haurrek jarraituko dute 24-25 ikasturtean eta 4-5 familia aurreikusten dira, familia berri bezala. Hurrengo ikasturtean Nafar Gobernuak ordainduko du zerbitzua eta familientzat debaldekua izango da. Patioan hobekuntza batzuk egiteko laguntza eskatu da.

Bestetik Nafar Gobernuan bilera burutu zen eskola garraioaz arduratzen direnekin, hurrengo ikasturtera begia ibilbideak antolatzeke. Biler horretan azpimarratu zitzaizen, udalak azken urtetan bere gain izan duen gastua eskola garraioarekin lotuta eta ikasturte honetan ikusten ari diren zerbitzuaren ahuldadeak, denbora asko pasatzen dutela errepidean ikasleak eskola joan edo etxera bueltatzeko eta beste...eskola garraiorako laguntza lerroa onartu du Nafar Gobernuak familiei zuzendua garraioko gastua bere gain hartzen ez duenean.

Ekainean burutuko da beste bilera bat hurrengo ikasturteko zerbitzua zehazteko. Eskola garraioa egiten duen taxi batek zerbitzua bertan behera utzi du eta hortaz udaleko taxi zerbitzua martxan izan arte, udalak Martin Jose Azpirozekin sinatu du kontratua, maiatzaren 3 arte zerbitzu hori burutu ahal izateko.

Hurrengo ikasturtean eskolak jantoki zerbitzua izango du, aurten ez bezala, ikasturte osoan, ekaina, iraila eta ostiralak barne.

Larraintzarko eskolak aurreko ikasturteko ez ohiko iharduerak burutzeko laguntza aurkeztu dio udalari, 31 ikasle izanik Basaburukoak, osotara 1240 euroko dirulaguntza eskaera egin du ikastetxeak. Ohi bezala bildutakoek onartzen dute eskaera eta ordainketa egiteko agindu. Hurrengo ikasturtera begira 40 euro ikasleko ekarpena haunditzeko proposamena ere egin du ikastetxeak, zonaldeko udalekin batera aztertuko da proposamena.

##### **Hirigintza Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.**

Udal plana berritzeko bilerak jarraitzen dute, aurrekoan landa lurrari buruz hitz egin zen eta alegazioak udal plana idatzi duen arkitektoarekin aztertu. Helburua da bilerekin jarraitzea eta ekaineko batzarrean onartzea.

### **Kontzejuen Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.**

Bilera burutu zen 2023ko kontzejuen kontuak aurkezteko, bertan kontzejuetatik eskatu zen email ofizialak izatea eta horren gastua zenbatekoa izango den Niebla informatika enpresari eskatu zaio.

Ultzamako Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateko lan babestuaren programa aurkeztu zen bileran eta finkatu ziren udalarentzat burutuko diren lanak hauek izanen dira:

- Sasturain etxeko oilategia hustu, garbitu eta teilatua berritu.

### **Berdintasun Batzordea. M<sup>a</sup> Mar Ansorenak ematen du informazioa.**

Emakumeen eguneko afaria martxoaren 9an egin zen ta martxoaren 23an bakarriketa.

Sasturain etxeko proiektua esleitu zen eta Euskadiko Arkitektoen Elkargoak kexa jarri zuen pleguaz ez zuenez legea betetzen eta hortaz erabaki zen bertan behera uztea prozedura eta orain modu zuzenean esleituko da, interesa agertu duten arkitektoei plana aurkezteko eskatuz, proiektua eta obraren zuzendaritza 14.900 euroko prezioa egiteko. Interesdunak proposamenak aurkezteko epea izango dute, apirilaren 19 arte.

### **Ogasun Batzordea. Micaela Elizaldek ematen du informazioa.**

Ordenantza fiskalak garatzeko beste batzordeek informazio bidaltzea falta da horren arabera ordenantza hobarik eta beste arautzeko.

### **5.- Informazio orokorra:**

Ez dago.

### **6. Erregu-galderak**

Ez daude.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 19:30ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.